



Ikastaro eskaintza gurasoei:

1) 0-5 urteko haurren jolas eta abestiak

0-5 urteko haurren jolas eta abestiak ikastaroa antolatu du Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Euskara Biziberritzeko Planaren (EBPN) barruan. Otsailaren 9an hasiko da ikastaroa, eta lau asteartetan emango da: otsailaren 9, 16 eta 23an eta martxoaren 2an. Goizez izango da ikastaroa, 9:30etatik 11:00etara, Barrena kultur etxean.

Bederatzi ordutan, gurasoei jolas zahar eta berriak irakatsiko dizkiete Gipuzkoako Urtxintxa Eskolakoek. Bihar amaituko da ikastaroan izena emateko epea eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, artean ere badago lekurik.

2) euskararen hastapena

Urdaneta eta Jakintza ikastetxeetako zazpi guraso euskara ikasten hasiko dira datorren astelehenean, otsailak 8 (14:45etatik 16:15etara). 60 orduko hastapen ikastaroa izango da eta astean lau arratsaldetan hartuko dituzte eskolak; astelehenetik ostegunera. Euskararekin harremanetan hasi nahi duten gurasoei deia egin diete Euskara Zerbitzukoek, izena eman dezaten. 20€ko matrikula du ikastaroak.